

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

KONTROL MOZIOA

Woody Allen sustatzen duen ibilbide turistiko bati dagokionez

Reyes Carrere Zabalak, EH BILDU udal taldeko zinegotziak, Udalbatzaren Organo Araudiaren 98. artikulua oinarri, mozio hau aurkezten du Udalbatzan azter dadin. Mozioa 2022ko apirilaren 11n Pertsonen Zerbitzuen Batzordean jorratutako interpelazioaren ondorioa da.

JUSTIFIKAZIOA

Donostia Turismoaren webgune ofizialean eskaintza turistiko hau agertzen da: *“Ibilbide interaktiboa: Ibilaldi bat Woody Allen-en Donostiatik”*.

Ez dirudi oso egokia udal departamentu batek horrelako sustapena egitea sexu-abusuagatik Woody Alleni egin zitzaizkion salaketak kontuan hartuta. Eta zentzu horretan, Udaleko Berdintasun Sailak, arrazoi beragatik, hiriko Urrezko Danborrerako bere hautagaitza baztertzea gomendatzen zuten bi txosten egin zituen 2019 eta 2021ean. Txosten horietan ondorengo arrazoa aipatzen zen: *“Sexu-abusuen biktimengan eta mugimendu feministarengan sortzen duen errefusa dela eta; izan ere, mugimendu feminista argi eta garbi aurka agertu da, sexu-abusuaren salaketengatik”*.

Txostenetan aitortzen da *“ez dela Woody Allenen aurkako kondena judizialik egon sexu-abusuagatik”*, baina bietan zehazten da, halaber, epaileak aitortu zuela *“jokabide desegokiak”* izan zirela.

Batzordean Berdintasuneko zinegotzia interpelatu genuen arren, ez zuen azalpenik eman nahi izan – nahiz eta aretoan egon –, eta, haren ordeztan, Cristina Lage Turismoko zinegotziak hartu zuen hitza, baina tourraren helburuak azaldu besterik ez zuen egin, nahiz eta gai hura ez izan interpelazioaren xede.

Horiek horrela, sinatzen duen zinegotziak honako kontrol mozio hau aurkezten du:

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia

Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus -- www.donostia.ehbildu.eus -

1. Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari eskaintza turistikotik eta Donostia Turismoa udal webgunetik *“Ibilbide interaktiboa: Ibilaldi bat Woody Allen-en Donostiatik”* izeneko tourra erretiratzea, Berdintasun Sailak Urrezko Danborraren hautagaitzei buruz egindako txostenak oinarri hartuta.
2. Udaltzak hertsatuki eskatzen dio Udal Gobernuari haren sail eta erakunde publiko guztietan politika feministak, genero ikuspegia eta zeharkakotasuna bermatzeko behar diren bitarteko guztiak jartzea eta, besteak beste, zeharkakotasun hori bermatzeko, ekintza jakin baterako egindako genero-txostenak gainontzeko udal sail edo erakundeetan ere kontuan hartzea.

Donostian, 2022ko apirilaren 22an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldeko zinegotzia